

Ikusmina, tamaina berdinean





AURKIBIDEA

Iritzia Oihana Iguaran **3**

Ikusmira(n) Nora Urbizu **8-9**

Asteko Gaia

Altzoko Handia, etxean **10-16**

Errezeta Aintzane Artola **17**

Bertsoa Txomin Azpiroz **19**

Iritzia Manex Gurrutxaga **20**

Iritzia Maddi Amiano **21**

Olerkia Karlos Linazasoro **23**

Agenda **24-25**

Erreportajea

Juan Luis Goenaga **26-29**



Azaleko irudia
Amaia Goikoetxea Azpeitia

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 82€

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

bai erabakia eta
lana eskatzen

3ikam

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeka Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizalete **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNEa: ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:



Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa eta Zizurkil.



Gipuzkoako
Foru Aldundia

Zori(on)a



OIHANA IGUARAN
BARANDIARAN
IKERLARI ETA
BERTSOLARIA

Zoriona izan liteke une bat, irribarre bat; izan liteke eraikia, itxurakeria edo izan daiteke jarrera bat. Baina zoriona, izan, zoria da, batez ere. Eta nik zori ona izan dut. Zori ona da, zoriontsu zaren edo ez pentsatzeko aukera izatea bera. Zoriona da, inposatzen zai-guna ere.

«Zorionak» da azken hilabeteetan gehien entzun dudana hitza; eta «zoriontsu» da, azken asteotan gehien ezarri zaidan aditzondoa. Paradoxikoa irudituko zaizue, baina ustezko zoriontasuna gainetik erantzi ahal izateak asko lagundu dit sentipen, jarrera edo zori horretara gerturatzen. Bizi izan dudana iraultza fisikoa, emozional eta intimo handiena iraultza publiko bilakatzen duen gizartean, identifikatuko ez gaituen zorion perfektua saltzen digute.

Entregaren, baldintzarik gabeko maitasunaren eta sakrifizioaren gorazarre etengabea, zoriona antzestu beste irtenbiderik ez du(gu) emakume askok. Merkatuak beldurrak ereiten dizkigu, konponbideak eskainiz etekinak biltzeko, uztan. Begiratu sare sozialak, ikusi iragarkiak: zorionaren apologia, distira, muxu zaporea eta Nenuko usaina (nola izango du ba amak izerdi, fardel edo esne-min usaina?!).

Mamu horri oihala erantzeko gai izan banaiz, ez da beste inor baino bizkorragoa naizelako; aitzitik, nire aurretik antzeko (eta guztiz desberdinak, ziur) esperientziak bizi izan dituzten emakume ausart askok amatasun ideala deseraikitzeke tresnak eman dizkidatelako da. Beste kontakizun bat jarri didatelako eskura, epairik eta errurik gabe nirea eraiki nezan. Zori ona baino gehiago da hori: elkartasuna da.

Bihotzetik eskertu nahi ditut tabuei ahotsa jarri dieten guztiak. Sabeletik eskertu nahi ditut, amaren osasuna (ere) lehen lerroan jartzen duten konplize profesional eta nekaezinak. Errailetatik eskertu nahi ditut, denak egina zirudienean nire errehabilitazioa bidera-

Beste kontakizun bat jarri didatelako eskura, epairik eta errurik gabe nirea eraiki nezan. Zori ona baino gehiago da hori: elkartasuna da.

tu zuten lagunak. Zaintza sarea sumatu dut gure inguruan ehundua, etxeko zein lagunetatik hasi eta mendeetan atzeraino. Familia nuklearretik taldera, tribura. Beste hainbeste egitea zor dizuet denei, zutabe hone-tako aitortza xumetik hasita.

Zorionekoa ni, garai eta herri honetan jaio nintzelako, sendi eta lagunarte honetara; zorionekoa ni, euskaraz hezi nindutelako, eta euskarak uniformetasuna susmagarritzat jotzeko talaia eman didalako. Zorionekoa ni, beste askoren borrokari esker nire gorputzarekin egiten dudana erabakitzeke gai sentitu naizelako eta zorionekoa ni, borroka horri esker denok eta beti erabaki ahal izateko asko falta dela ikusten dudalako. Zorionekoa ni, beldur eta zalantzei aurre egiteko tresnak aurkitu ditudalako inguruko milaka emakumeen artean. Eta horrela, zuei esker, zoriontsu naizen ez dakidanean ere, zorionekoa naiz.

«Oso beldurtia naiz, eta gauak izan dira txarrena»

IMANOL ARTOLA ARRETXE 'FELIX'

BIDAIA

Amezketarrak abuztuaren 1ean ekin zion bizikleta abenturari. Oporrak Euskal Herrian pasatzea erabaki, eta zazpi herrialdeetatik zeharkaldia egin du. «Asko balio izan dit, eta indartuago atera naiz», dio.

Eneritz Maiz Etxarri Amezketara

Hemezortzi etapetan egiteko asmoa zuen zeharkaldia, hamalau etapetan amaitu zuen Imanol Artola Arretxe *felix*-ek. Bizikleta hartu, eta oihalezko etxola eta lo zakua hartuta egin du Euskal Herriaren ertzetik zeharkaldia. Bidean, besteak beste, bi aldiz konpondu behar izan du bere garraiobidea, eta Arabako lurretan sartuta, oihalezko etxola galdu eta berria ere erosi behar izan zuen. Enkarterrietara bisita egiteko gomendioa luzatu du. Gurasoak lagun izan ditu, eta gus-tura dago, batik bat, bere buruarekin.

Noiz bururatu zitzaizun bidaia mota hau egitea?

15 urte izango dira opor hauek egingo nituela buruan nuela. Konfinamenduak askorako eman du, eta bukatu zenean, hausnarketa asko egin nituen. Jokin anaiarekin konpartitu nituen. Jokinek, hausnarketa garaian, 20 bat egunez neure buruarekin egon eta kirola eginez oporrak egitera animatu ninduen.

Zer dela-eta bizikletaz?

Gehien gustatzen zaidan kiroleko bat izango da. Banaiz txirrindularitzako frikia. Aldapak igo aurretik zein portzentaia eta dituzten begiratzen dut. Betidanik gustatu izan zait, eta aspalditik ibiltzen naiz. Eta orain ere badut erronka, eguraldiak laguntzen duenean lanera ere, Abaltzisketatik Tolosara bizikletan joatea. Garraiobide moduan ere erabili izan dut.

Euskal Herriaren mugen ertzetik egin duzu zeharkaldia. Hori nahi zenuen?

Bai. Euskal Herriaren ertzetik pasatzea zen asmoa. Itzulia ahalik eta ertzenetik egitea zen helburua. Kulturaren edo erromantizismoaren *frikismoraino* joa-

nez, Euskal Herria zeharkatzea. Duela 15 urte ia kalkulatu nuen 1.100-1.200 kilometro izan behar zutela.

Abuztuaren 1a jarri zenuen hasteko eguna. Urduritasunik bazenuen?

Prestaketa lan asko egin dut, eta astebete lehenagotik egun horiek jada bai pasa nituela urduri samar. Bezperako gauean ere ez nuen lo gehiegirik egin, eta seiak aldera esnatu eta aitak eraman ninduen Donostiako Ondarretara. Oso agur hotza izan zen nire urduritasuna medio. Zirimiria ari zuen gainera, eta bizikleta ondo jarri aitari besarkada bat, eta Igeldon gora abiatu nintzen. Oriora jaisterakoan konturatu nintzen frenoak ez nituela guztiz ondo, eta abiatu aurretik bizikletari ere ez niola azterketarik pasa.

138 kilo gainea. Erraz ibili zara?

Aldapa txikiren bat ikusten nuen momentutik arin-arinenean jarri, ipurdia lasai aulkian eseri eta halakoren batean iritsiko naiz gora zen nire planteamendua. Pisua da, eta neuk ere badut, baina zakua, denda,... beste 20-25 kilo gehiago banituen, egunaren arabera. Nabaritzen da, eta kostatzen da, baina pazientziarekin hartu eta 24 orduak horretarako badituzu, eroso da.

Lo lekuak erabakita zenituen edota sasoiaren arabera erabakitzen zenuen non geratu?

Berez hemezortzi egun nituen kalkulatu, eta Google Maps-i esker guztia nuen zehaztuta. Zenbat kilometro, lo non egin,... Lehen bost egunetan dezente mantendu nuen antolatutakoa, baina gero oso ondo ikusten nuen neure burua eta egunez egun joan nintzen hamalau etapetan bukatuz. Niretzat esperien-



Imanol Artola amezketarrak Euskal Herria zeharkatu du 14 etapetan. Oihalezko etxola hartuta ibili da. **ATARIA**

tzia berria zen, eta segurutik jo nuen hasieran. Garbi nuen ahalik eta herririk txikienetan egin nahi nuela lo, eta horiek bilatzen saiatu nintzen.

Kanpoan egiten zenuen lo. Beldurrik pasa duzu?

Nik ez dut ondo deskantsatu. Ez nuen lo hartzen 01:30-02:00ak arte normalean, eta 04:00ak aldera berriz esnatzen nintzen. Oso beldurtia naiz, eta gauak izan dira unerik txarrena. Ez dut lo asko egin.

Lagunen bat ere egin duzu bidean.

Bai, Bizkaiko zubia zeharkatzean beste txirrindulari batekin egin nuen topo. Hizketan hasi eta Lodosatik pasako nintzela eta, bost minuturako bere etxea eskaini zidan. Carcar herrikoa zela, eta bertan izango nuela jatekoa, dutxa eta lo lekua. Telefono zenbakia hartu nion, eta behingoz ondo bazkaldu eta afaldu nuen, eta baita ondo deskantsatu ere ohe batean lo

eginda. Markosekin egun hori pasa izanak asko lagundu zidan. Oso eskertuta nago ezagutzen ez dutun pertsona batek horrela atea ireki izanaz.

«Gure herria zeinen askotarikoa den jabetzeko balio izan dit» idatzi duzu.

Ez nekien zer topatuko nuen. Karrantzan gauza batekin egin nuen topo, Erriberan, erabateko kultura ezberdina, eta Iparraldera pasata momentu batzuetan arrotz sentitzeraino. Euskal Herria berdea irudikatzen dugu, baina etapa gehienak horia eta lautadetan bueltan egin ditut. Askok balio izan dit, eta indartuago aterata naiz. Bukatu ostean, amak esan zidan, bosgarren egunerako seguru zegoela etxera itzuliko nintzela. Sentsiblegia eta beldurtiegia naizelako kanpoan lo eginez ibiltzeko. Nik ere horrela uste nuen, ez nengoen seguru egingo nuen edo ez.

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi **ataria@ataria.eus** helbidera edo pasa

ATARIA-ko bulegotik (San Esteban, 20. Tolosa). Iragarki guztiak **iragarkilaburrak.eus**-en.



GAZTA ZATI BAT BAINO GEHIAGO

Nairobitarrak eta Zumardia elkarteak elkarlanean, Gaztaren Ibilbidea izeneko mendi ibilaldia antolatu dute udan zehar. Sei etapatan, Euskal Herriko txokoak bisitatu eta bertakoa baloratzen ikasi dute zenbait herritarrek. Bidaia modura joan denetako bat izan da Ainhoa Artolazabal tolosarra. «Bertakoek ezagutzeko moduko bidaia bat da», dio.

Josu Artutxa Dorronsoro

Nairobitarrak eta Zumardia elkarteak elkarlanean, uda honetan Euskal Herrian egiteko moduko mendi ibilaldiak diseinatu zituzten, tartean, Gaztaren Ibilbidea izenekoa. Iker Iriarte alegiarra eta Josu Iztueta tolosarra izan dira ibilbide horretan gidari lanak egin dituztenak. Behin baino gehiagotan egin dute, gazte nahiz helduekin. Bidaia-arten artean ere izan dira eskualdeko herritarrek, besteak beste, Ainhoa Artolazabal tolosarra. «Emozio eta abentura apur bat behar nuen, eta nahi bat asetzeko aukera izan dut», dio.

Ekainean ikastetxean lanean hasi zirenean, tarteka, zenbait irakasle mendi ibilaldiak egitera animatu zirela dio Artolazabalek. Gero, Zumardiakoen udako propo-

samenaren berri izan zuen; lankideekin hitz egin ondoren, beste irakasle batekin batera joan zen abuztuko txandan. Hamar bat lagunekoa taldea elkartu ziren. «Guztiak ezagunak edo ezagunen ezagunak ziren, eta beraz, oso erraza izan da oztoporik gabeko elkarbizitza bat mantentzea. Erlazio eta giro ona izan dugu. Josuk [Iztuetak] esaten duen bezala, talde-kohesioa oso ondo egin genuen».

Sei etapatan osatu dute itzulia. Ordizian hasi ziren, eta Zerainen pasa zuten lehen gaua. Zeraindik Brinkolara; Brinkolatik Arantzazura; Arantzazutik Etzegaratera, eta azken gaua Zaldibian egin zuten. Sei egun eta bost gau. Goizeko 8:00ak aldera esnatzen ziren, gosaltzeko. Guztia jaso ondoren, 9:30ak inguruan abiatzen

ziren. «Egun bakoitzean 15-20 kilometro egiten genituen, baina otorduak egiteko denbora izaten genuen, hau da, nahiko lasai ibiltzen ginen».

Master bat, paraie ederretan barrena

Etapa bakoitzean, gainera, naturarekin, kulturarekin nahiz historiarekin zerikusia zuen zerbaite kontatzen zela dio Artolazabalek. «Idiazabalgo Gaztaren Interpretazio Zentroan gaztaren historia ezagutu genuen; Arantzazuko Artzain Eskolan gazta nola egiten zen azaldu ziguten; Legazpiko Burdinolara heldu aurretik, burdina nola lortzen zuten ikasi, eta horretarako bidean zehar zer-nolako asmakizunak zeuden ikusi genuen; eta Etzegarateko gainean, Gipuzkoan dagoen pagadi handienetako batean lo egin genuen».

Ondorioz, bidaia bera «ikasgai bat» izan dela aitortzen du. «Esperientzia oso ona izan da. Gainera, luxu bat da Josu [Iztueta] bezalako gida batekin bidaiatzea. Ez zen soilik Gaztaren Ibilbideari buruz zekielako. Gure herriko historiari, bertako mendiek duten itxuraren zergatiari edota bestelako mila konturi buruz ere badakielako. Bidaia oso aberasgarria izan da, zentzu guztietan. Sei egunak igaro eta gero, etxera iristean 'Zenbat ikasi dudan!' pentsatu nuen nire baitan. Master bat egin nuela zirudien».

Inoiz ahaztuko ez dituzten momentuak

Gisa honetako bidaietan, gainera, umorezko ateraldiak nahiz anekdota gogoangarrietan geratzen diren uneak bizitzeko aukera ematen da. Horrela gogoratzen du

Artolazabalek gaztaren inguruan izandakoa: «Lehen hiru egunetan ez genuen gazta bakar baten arrastorik izan. Orduan, Josuri [Iztueta] txantxetan esan nion ea ibilbidearen izena ikusita hori posible ote zen. Berak lasai egoteko esan zidan. Egun horretan bertan, Arantzazuko Artzain Eskolan geundela, gazta dastaketa izan genuen. Ordutik aurrera, etengabe gazta jaten ari-tu gara, otordu guztietan. Azkenean, gaztarekin nazkatzen ari nintzela ere aipatu nion Josuri».

Bidaia honek bazuen beste berezitasun bat: gauak igarotzeko leku bereziak. Askorentzat arrotzak ziren. Lehen aipatu bezala, pagadi batean egin zuten lo behin. Baina izan dira aire librean igaro dituzten gau gehiago ere. «Dezenteko altueran geunden eta behelainoa zegoen. Egunean zehar erabilitako arropak kanpoan utzita egin nuen lo gauean. Hurrengo egunean esnatzean, arropa bustita nuela ohartu nintzen. Josuk galdetu zidan ea ez ote nuen arropa zaku barruan sartu. Nik nire inozentzia guztiarekin ezetz esan nion. 30 urte edo izango ziren lurlean lo egiten ez nuela, pentsa! Lehen egunean ez nuen lorik egin, baina azken gauean artzain borda batean gaua igaro genuenean, ez nintzen ezertaz ere ohartu. Horregatik diot ez dela zeharkaldi soil bat izan».

Ahaliko balu, abentura gustuko duen edonor gonbidatuko luke zeharkaldi honetara Artolazabalek. «Xerparen bat behar bazuten ere, prest nengoela aipatu nien. Gugandik oso gertu ditugun lekuak dira, eta ez gara ohartzen. Non bizi gara?». Bere kasuan, berriro errepikatuko lukeela dio: «Zalantzarik gabe».

ATARIAN jarrita Gohierri
eta Urola Kostako
Hitza egunkarietan doan

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Txikia: 110€ • Atarikideentzat: 55€
Handia: 160€ • Atarikideentzat: 80€
Eskertza: 60€ • Atarikideentzat: 30€

Eskelak • ataria@ataria.eus • Tel: 943 65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu. Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu.



**NORA URBIZU
AROZENA**
ANTROPOLOGOA

Kontaezinak

Bi mila eta hamaikaz-
geroztik eta Nazio
Batuen Erakundeak
sustatuta, abuztuaren 30a

Behartutako Desagertzeen Biktimen Nazioarteko Eguna da. Norbaitek galde diezaioke bere buruari zertarako ote diren Nazio Batuen Erakundeak izendaturiko nazioarteko egun hauek, bada, hain zuzen ere, salaketa eta sentsibilizaziorako. Oro har, egutegian berezitutako egun hauek giza eskubideen, osasunaren eta garapen iraunkorraren inguruko gaiak jorratzen dituzte eta, esan bezala, gizarteari argitu gabeko aferak daudela gogorarazten dizkiote.

Hain zuzen ere, egun honen kariatara, Euskal Fonda erakundeko Saharako Koordinazio Unitateak zabalduko azken buletinean behartutako desagertu sahararren berri eman zen. Bertan, 432 desagertu saharar bazirela jakinarazten zen, Saharako Presoen eta Desagertuen Senideen Elkarateak (AFAPREDE-SA) eginiko datu-basearen arabera. Datu lazgarri hau, ordea, izebergaren gaina besterik ez da. Izan ere, ehunka mila pertsona omen dira behartutako desagertuak, gutxienez, mundu osoko 85 herrialdetan. Hotzikara sortzeko moduko zifrak agertzen zaizkigu Hego Ameriketako hainbat estatutan; datu dantza sumatzen den arren, ziurtatu daiteke milaka direla Kolonbian, Guatemalan, Argentinan, El Salvadorren... Beste hainbeste gertatzen da Sirian, Sri Lankan, Bosnia-Herzegovinan... Eta baita, nola ez, Espainiar Estatuan ere. Amaigabea da behartutako edo bortxazko desagertuen zerrenda ankerra.

Behartutako desagertze kontzeptuak argi adierazten du norbere borondatearen aurka jazotako aienatzeak direla egun honetan oroituak. Honela, 1992an



Nazio Batuen Batzar Orokorrak behartutako desagertzea «edozein sektore edo mailatako gobernu-agenteei, Gobernuaren izenean edo haren zuzeneko edo zeharkako babesarekin diharduten taldeek norbanakoak atxilotu, geldiarazi edo haien borondatearen aurka eramatea, edo pertsona horiek beste era batera askatasunik gabe uztea» zela adostu zuen. Ezjakintasunarekin eta ziurgabetasunarekin erabat lotuta agertzen da giza eskubide ugari urratzen dituen ekintza larri hau; izan desagerrarazi den biktimarekiko, izan honen senide eta lagunekikoa.

Behartutako desagertuen biktimen patua kasu gehienetan heriotza bada ere, jakin badakigu ez dela beti horrela izaten. Begiratu bestetik ez dugu, esaterako, hainbat sahararren errelatoak argitutakoa; Ag-



dez, Kalaat Maguna, Shoura eta Aaiungo ezkutuko atxilotze-zentroetan dozenaka urte igaro ondoren askatasuna berreskuratu baitute. Urte luzez senide eta komunitatearekin inolako harremanik izan ez, heriotzatik ihes egin eta askatzen badituzte ere, orbain fisiko eta psikologikoak izugarriak izan ohi dira.

Desagertutako pertsonaren sendiak bizi ohi duen ziurgabetasun-egoera ere ez da nolanahikoa; eta ez dakite biktima oraindik bizi den eta, hala bada, non dagoen preso, zein egoeratan eta zein den haren osasun-egoera, eta hil badute, berriaz, hilotza non den... Zauri iraunkorra pairatzen dute, maiz larritasun- eta an-

Ehunka mila pertsona omen dira behartutako desagertuak, gutxienez, mundu osoko 85 herrialdetan

tsietate-koadro sakonekin lotua agertzen dena. Gainera, jakitun dira haiek ere mehatxupearan egon daitezkeela eta zorte bera izan dezaketela, areago egia arakatzen hastean.

Aipagarria da nazioarteko auzitegiek torturatzat hartzen dutela behartutako desagertuei buruzko egiazko informazioa emateari uko egitea. Izan ere, senide eta lagunak galdu dituztenek eskubide osoa dute maite dituztenekin zer gertatu zen jakiteko. Sarritan, urtetan egoten dira inoiz iristen ez diren albisteekin zain, itxaropenaren eta etsipenaren arteko emoziotan murgilduz. Indarkeria mota maltzur hau guda-taktiken artean bat gehiago da, ez da helburu bere horretan; helburu desberdinak dituzten erregimen jakin batzuen estrategiaren zerbitzura dago, hala nola, kontrol soziala, beldurra, genozidioa edo ezkutuko sareak suntsitzea. Honek guztiak, bortxaz desagertua izan denaren komunitatean, beldurra eta segurtasun gabezi sentsazioa sortzen ditu.

Ehundura sozial kaltetu horiek berreraikitze prozesuetan egiaren bilatzea oinarri-oinarrizkoa da; komunitate batek aurrera egin dezan, gertaera lazgarri haiek ikertzea eta egiaren adierazpen publikoak egi-tea beharrezkoa baita. Erreparazio moral eta soziala merezi dute senitarteko eta lagun horiek guztiek, eta jazotakoaren aitortza osoa desagerrarazitakoek.

Atahualpa Yupanqui olerkari eta musikari argentinarrek senide asko zituela abestu zuen, kontaezinak zirela. Bere hitzekin emango diot amaiera idatzi labur honi, Argentina begiratzuz eta gure herri honi keinu eginez: «Eta horrela jarraituko dugu oinez bakardadeak blaituta, eta gudan gure hildakoak, inor atzean gera ez dadin».

MITOAREN GARAIERA, HERRIAREN ARGITARA

Migel Joakin Eleizegi Ateaga 'Altzoko Handia'-ren hezurrekin zer egin erabaki eta ondo babestu aurretik, Altzoko herritarrei erakutsi zaizkie. «Handia eta herria bidetik doaz», dio Txomin Rezola Altzoko alkateak. Aurkikuntzak, gainera, argi utzi du ez direla sekula banandu, eta iraileko lehen egunetan aurrez aurre elkartu dira berriro plazan, hurrengo pausoak zehaztu artean.

Amaia Goikoetxea Azpeitia

Belaunaldiz belaunaldi entzun den istorioa izan da Migel Joakin Eleizegi Ateagarena, *Altzoko Handia*-rena. 2 metro eta 42 zentimetroko garaiera izan zuen, eta altuera horrek baldintzatutako eta bideratutako bizitza eginda, bere altueraren neurriko mitoa haziz joan da: non ote Altzoko Handiaren arrastoak?

Zurrumurruak zurrumurru, 160 urteren ondotik, egia jakin bakarrik ez, eta ikusi egin ahal izan dugu. Abuztuan Altzoazpiko hilerrian bertan aurkitutako bere hezurak Altzoko herritarrei erakutsi zaizkie hi-

labetearen hasieran. Hezurrekin zer egin erabakitzeke dago oraingoz.

Altzoko Handia, herritarren aurrean

Mugarria izan da 2020ko uda Altzoko Handiaren istorioan. Hainbatetan entzundako istorioari zenbait lerro gehitu zaizkio; edo beste zenbait kendu. Asko izan dira Migel Joakin Eleizegiren gorpuzkien inguruan zabaldutako hipotesiak, baina bakarra gailendu da Aranzadi Zientzia Elkartek egindako aurkikuntzari esker: 1861ean lurperatu zutenetik, Altzoazpin egon dela Handia, etxean.

Abuztuan egindako aurkikuntzaren xehetasunak



altzotarrei eman zaizkie hilabete honen hasieran. Jende dezente elkartu da interpretazio zentrotik behera dauden petriletan, azalpenak entzuteko eta, batez ere, hezurak ikusteko.

«Altzoko Udalak Gerra Zibil garaian eta Frankismoaren lehen urteetan gertatutako Giza Eskubideen urraketen azterketa bat egitekoa asmoa hartu du», hasi da azaltzen Altzoko Udaleko Karmen Murua zinegotzia: «Azterketa hori egiteko beharrezkoa da hainbat artxibo arakatzea, eta lan hori Aranzadik egingo duenez, hemen izan dugu aurreko hilabeteetan Karlos Almortza historiagilea, herriko udal artxi-boa aztertzen».

Almortzak eta udaleko langileek kafea hartzeko egiten duten geldialdian atera zen Altzoko Handiaren gaia: «Datu zehatzak hartzerakoan, zer geneukan? Altzoazpin lurperatu zela 1861ean; dokumentua genuen, eta hau da genekien gauza ziur bakarra», dio Almortzak. Lapurtua izan zela, erosiak izan zirela, Madrilen zeudela, Londonen, Parisen... horiek frogatzeko ebidentziarik ez zegoela azaltzen du Almortzak, eta, beraz, zegoen ebidentzia bakar horretatik abiatzeko ideia gorpuztu zen kafe tertulia haietan. Handik egin zen udalera proposamena: «Udal taldeak egokitzat ikusi zun lan horiek egitea, eta Aranzadiri eskaera egin zitzaion bilaketa lan horiek egiteko», jarraitu du Muruak.

Aurkikuntzaren berri eman du Aranzadi Zientzia Elkarteko Lourdes Herrastik ere herritarren aurrean, eta Pako Etxeberriaren laguntzaz erakutsi dituzte Migel Joakin Eleizegiren hezurak. Aldamenean izan dira Handiaren ondorengoak ere: «Pozik gaude bertan agertu direlako», azaldu du Pilar Unsain senitar-tekoak. Oraindik hezurrekin zer egin zehazteko dutela aipatu du.

Karmen Murua zinegotziak eskerrak eman nahi izan dizkio familiari «pazientziaz eta eskuzabaltasunez erantzun duelako», eta indusketan aritu den taldearen lana nabarmendu nahi izan du: «Opor garai-ko egunak horretan pasa zituzten, otorduaren truke. Zorionak», esanez agurtu du ekitaldia.

Altzotarrek, haurrek zein helduek, Migel Joakin Eleizegi bertatik bertara ezagutzeko parada bikaina izan dute.



Altzoko Handia, denon ahotan

Handiarekiko interesa izan duten sortzaile eta iker-tzaile horietako zenbaitek ez diote Eleizegi bertatik bertara ikusteko eta herritarrekin momentua partekatzeko aukerari uko egin nahi izan, eta irailaren hasieran egindako ekitaldian izan dira.

David Azurzak, Koldo Izagirreraren testua oinarri hartuta, opera osatu zuen etxeko txikienentzat. Aurkikuntzaren berri izan orduko, Azurzak Izagirreri idatzi ziola aipatu du, eta, operari erreferentzia eginez, lapurrak eta piratak ez egonda, agian amaiera aldatu behar zitzaiola esanez zirikatu zuela.

Aitor Arregi *Handia* filmaren zuzendarietako bat ere Altzon izan da. Aurkikuntzak eragin dezakeenaren inguruan bere iritzia eman du: «Elkarriketatari beti esaten genuen sentitzen genuela gure lana Migel Joakinen mitoaren hazkundearen azken zentime-

tro horiek zirela, eta handitzen jarraituko zuela. Nik uste dut, honek suposatzen duela, batetik, 'istorioa horrelaxe da' esatea, eta, bestetik, bere mitoa handitzen jarraituko duenaren sentsazioa ematen dit». *Handia* filmaren ekoizpenak hurbileko egin dizkiete Moriarti ekoizpen etxekoei bai Altzo, altzotarrak eta baita Migel Joakin Eleizegi: «Hau berezia da. Honek guztiak hunkitu egiten gaitu. Ez gara zuek (altzotarrak), baina zuen parte sentitzen gara, hiru urtetan *Handian* lanean aritu garelako; eta hiltzen garen arte, uste dut, konpainia egingo digutela Migel Joakinek eta istorio guztiak».

Luis Angel Sanchez Gomez, Madrilgo Unibertsitate Complutenseko kultur antropologia irakaslea eta *El gigante de Altzo* argitalpenaren egilea ekitaldian izan da. Aurkikuntzagatik pozik dagoela esan eta Altzoko herriari eskerrak emanda, Eleizegiren bizitzaren inguruko hausnarketa ere egin du: «Ez dut uste esplotatutako pertsona izan zenik; Altzon geratuta ziurrenik ezertarako baliatuko ez zituen mugak eta abantailak aprobetxatzen jakin zituzten bere familiak eta berak».

«Handiarenak ere bat egiten du memoria historikoaren helburuekin»

Pozgarria eta garrantzitsua izan da Altzoko Udalarentzat aurkikuntza ez ezik, aurkikuntzaren berria emateko herritarrei zuzendutako ekitaldia egitea: «Aurkikuntza egin zenean eman zen prentsaurreko bat; prentsa gerturatu zen, eta herritarren bat edo beste ere bai, baina guretzat oso garrantzitsua zen herritarrei hezurak bertatik bertara erakusteko aukera ematea, segur aski, ez dutelako berriro ere aukera hori izango», azaldu du Karmen Murua zinegotziak: «Hezur horiek babestu eta gorde egin behar dira, eta ez dira inoiz inon ikusgai jarriko; ez da sakonki pentsatu eta ezer erabaki horren inguruan, baina, izatekotan ere, erreplikak izango lirarteke, ez hezurak beraiek».

Erabaki horretan, noski, senitarte-koek badute zer esanik: «Familiarekin hitz egin behar dugu; kide batzuekin hitz egin dugu, baina familia handia da. Handia Altzoazpin jaio zen, han bizi izan zen, eta han hil zen. Bere nahia han lur ematea izan zen. Niri iruditzen zait hori errespetatu eta Altzoazpin lurperatu behar dugula», aitortu du Txomin Rezola alkateak. Familiaren iritzia eta nahia jakitea nahitaezkoa izango dela azpimarratu du Muruak ere, eta gehitu du «Aranzadikoei, egin duten bilaketa lanetan, dokumentazio grafiko asko jaso dute; horrekin zerbait egingo ote den ere hitz egin behar dugu».

Altzoko Udala izan da bilaketaren sustatzaile, Karlos Almortza historiagile eta Aranzadi Zientzia Elkarteko kideak eraginda. Muruak gogoratu du, hala ere,

«Handia guretzat ikurra da: gure ikurra. Handia eta herria bidetik doaz»

aurreko udal taldeak egin zuela Aranzadikoei Migel Joakin Eleizegiren arrastoen inguruko galdera lehenago: «Antza denez, *Handia* filmaren inguruan sortu zen ikusmirarekin, aurreko udal taldeak egin zuen kontsulta bat Aranzadira. Aipatu zen Pariseko giza museoan badagoela pertsona handi baten hezurdu-
ra bat, gutxi gorabehera neurri horretakoa eta identifikatu gabekoa, eta, agian, hori izan zitekeela bidea: haren DNA aztertzea eta familiarenarekin alderatzea». Oraingoan, Almortzak aholkatutako ebidentzia abiapuntu hartuta, bilaketak emaitza izan du: «Ustekabeko emaitza izan da», aitortu du Muruak. «Ni neu nahiko eszeptikoa nintzen, gaitzak berak berekin zuen osteoporosia handia zelako, eta agian hezurak deseginda egongo zirela pentsatzekoa zelako».

«Memoria historiakoarekin lotuta ere badago hau, ezta?», gehitu du Rezolak: «Karlos [Almortza] memoria historikorako lana egitera etorri zen Altzoko Udalera, eta niri iruditzen zait hau ere lotuta dagoela. Memoria historikoaren helburuak dira egia, justizia eta erreparazioa, eta orain Handiaren inguruko zurrumurru horiek amaituta, balorea eta justizia eman behar zaio Handiaren bizitza horri, osoari».

«160 urte horrela pasatzea... etxean zegoela jakin gabe», amaitu du Rezolak: «Handia guretzat ikurra da: gure ikurra. Handia eta herria bidetik doaz». Eta aurkikuntzak agerian utzi du ez direla inoiz banandu: «Altzoren izena mundu osoan zabaltzen du, eta hori eskertzekoa da».

«Apartekoa; handia zen heinean, handiak behar genituen topatu»

Azkarra izan da prozesua: bilaketarako proposamena egitea, hastea eta emaitza lortzea aste gutxiren buruan gauzatu da. Maiatzean hasi zen Almortza Giza Eskubideen urraketen inguruko azterketarako Altzoko udaletxeko artxiboan lanean, eta, ordutik uztailera bitartean gorpuztu zen bilaketa hasteko asmoa. Almortzaren bidez Lourdes Herrastiren eta Pako Etxeberrriaren taldearekin harremanetan jarri ondoren, uztailaren 30ean egin zion Altzoko Udalak eskaera ofiziala Aranzadi Zientzia Elkarteari. Familiarekin hitz egin zuen aldeaz aurretik udalak, eta herriko erretorea-ri ere baimena eskatu zitzaion Altxoazpiko hilerrian lan egiteko.

«Inork ez zuen trabarik jarri, eta oso azkar joan da dena», azaldu du Karmen Murua Altxoko Udaleko zinegotziak: «Uste genuen udazkenean edo izango zela, baina abuztuaren hasiko zirela esan ziguten Aranzadikoek, hemen izango baitziren indusketan gustura parte hartuko zuten zientzia munduko beste kide batzuk». Lourdes Herrasti Aranzadi Zientzia Elkarteko kideak aipatu ditu: Morris Tidball-Binz, Gurutze Gorriko Nazioarteko Batzordeko mediku forentsea; Rafael Yuste, neurobiologo entzutetsua; eta Xabier Uribe-Etxebarria, Sherpa adimen artifizialaren inguruan aritzen den enpresaren sortzailea. Otorduen truke aritu dira lanean Aranzadi Zientzia Elkarteko kideak.

«Abuztuaren 12an hasi ginen», gogoratu du Herrastik. Altxoazpiko hilerrian Handiaren familia lurperatu ohi zen hilobian hasi ziren lanean: «Le-

hen zundaketan zoruraino iritsi ginen, metro bateko sakoneran; hor ez zegoela konturatu ginen, eta hezurtegia begiratze-ari ekin genion». Izan ere, inoiz hilerrian hilobiratua izan bazen eta gerora atera, lurperatzaileak hezur horiek hezurtegia bota zituelakoan zeuden. «Gure helburua aparteko hezurak topatzea zen. Apartekoa; handia zen heinean, handiak behar genituen topatu».

Abuztuaren 14an, arratsaldean, topatu zen hezurte-





gian ez-ohiko neurria zuen lehen hezurra: beso-
sokoa, humeroa. «Hura izan zen lehena. He-
zurrak ateratzen jarraitu genuen, jada ilusio
izugarriarekin, bagenekielako gehiago
egon zitezkeela. Denok ezaguna ge-
nuen Altzoko Handia, eta denontza-
ko zen gustu handiko enpresa»,
azaldu du gero Herrastik.

Alkateari jakinarazi zitzaion eta
hark senitartekoei: «Berria zela
eta, Pilarrek [Unsain, Altzoko Han-
diaren ondorengoa] kanpaiak jo
behar zirela esan zuen. Hezurte-
gian lanean ari ginela, entzun geni-
tuen kanpaiak; aurkikuntzaren berri

izan zuten denek horrela», gogoratu du Herrastik.

Hezurrak banan-banan kokatzen joan da He-
rrasti herritarren aurrean egindako ekitaldian:
«Hauek dira ekarri ditugunak, baina gehiago dau-
de. Ornoak ere topatu ditugu, beheko aldeko or-
noak, eta nabarmena da gaixotasun izugarria
zuela, artrosiak jota zegoelako. Bizkarrezurrak
bere zama pairatu zuen; bizkarra benetan honda-
tua zeukan», argitu du Aranzadikoak: «Istorioak
dio minez kexatzen zela, eta, segur aski, min han-
dia izan zuen».

«Hezurtegian lanean ari
ginela, entzun genituen
kanpaiak; aurkikuntzaren
berri izan zuten denek
horrela»

Tamaina deigarriari erreparatuta, proba geneti-
koa egiteko beharrik ez dagoela azaldu du: «Za-
lantzarik ez dago. Ezinezkoa da beste norbait
izatea», baieztatzen du Herrastik. Aurkikuntzak
eman dezakeen informazio bilketan jarraituko
dute, beste alor batzuetako adituekin ere lanean.



64 zentimetroko femurra

Humerotik hasi eta pixkanaka Migel Joakin Eleizegi Ateagaren hezurdura osatu du Aranzadi Zientzia Elkartek bilaketa lanak aurrera egin ahala; herritarrei zuzendutako ekitaldian, tamaina errealean eginda zegoen marrazkian beltzez markatutako hezur guztiak dira topatutakoak.

«Aurkitu genuen humeroa; aurkitu genuen femurra. Femurra konturatzen bazarete izugarri handia da. 64 zentimetro ditu», azaldu die Herrastik herritarrei hezurak erakutsiz; ez-ohiko neurriaz jabetzeko zenbait hezur ohiko neurria dutenekin alderatu ditu.

«Hezurdura osoaren adibideren bat daukagu», azaldu du Herrastik: «Falangeak ez ditugu, baina

oso normala da hori, lurperatu eta berriro kanporatzean, gehienetan baztertu eta galdu egiten diren hezurak tamaina txikikoak izaten direlako; horiek dira ez daudenak».

Hezurren egoera ona, oro har, aipatzekoa da: «Batez ere kontuan hartu behar dugulako, lurperatuak izan zirela eta gero atera egin zirela, desartikulatu egin zela eskeletoa eta hala jarri zituztela hezurtegian. Mugimendu horiek guztiek kaltetu egiten dituzte askotan hezurak». Are gehiago, zeukan gaitza aintzat hartuta: «Jatorriz jada ahulduta zeukan hezurra, osteoporosia. Kasu honetan, nahiko egoera onean topatu ditugu hezurak. Sorpresa bat izan da, onerako».

Melokotoia greziar jogurtarekin



**AINZANE
ARTOLA**



Azkenbururako freskagarri bat da gaurko proposamena, familia eta lagunekin berriro elkartzeko aukera dugun honetan. Postre berezi, sinple eta jende gehienari gustatuko zaiona: greziar jogurtarekin melokotoia.

Lehen pausoa jogurta etxean nola egin ikasiko dugu. Normalean jogurtak erosi egiten badira ere, etxean egitea oso erraza da. Dirua aurreztu eta plastikozko ontziak ez kontsumitzea lortuko dugu honela. Egia da, zaporera ohitu behar dugula. Izan ere, ohituta gaude azukre askoko jogurtak jatera.

Ontzi batean esnea berotzen jarriko dugu, suabe-suabe, 37-40 gradu artean, behatza sartu eta erretzen ez digula. Esnea tenperatura horretan dugula, sua itzali eta esne-gaina eta esne hautsa gehitu eta nahastuko ditugu. Barila batzuk erabiliz, ondo-ondo nahastuko dugu. Behin nahastuta, likido itxuran geldituko zaigu.

Nahasketa hori ontzietan botako dugu. Litro esnearekin, gutxi gorabehera hamar bat bote lortuko ditugu. Tapa jarriko diegu ontzi hauei, adibidez kontserba poteak erabili ahal ditugu. Gainera, gainetik trapu batez ere estaliko ditugu, tenperatura mantendu ahal izateko. Tenperatura hori ideala baita bakteriak bizirik mantentzeko, xomorrotxoek orduan guk jateko moduko jogurta sortuko dute eta. Trapu edo jertse batekin tapatzeaz gain, mugituko ez ditugun toki batean kokatuko ditugu, gutxienez sei orduz mantendu beharko ditugu eta. Denbora hau pasata, hozkailuan sartuko genituzke eta aste-aste t'erdiz jateko moduan izango ditugu gure jogurtak. Behin hozkailuan sartzerakoan, hozterakoan, solidifikatzen joango da gure jogurta.

Melokotoiaren txanda da segidan. Labea 180 gradutan jarriko dugu berotzen. Berotu bitartean, melokotoiak zuritzen hasiko gara eta ondoren, dadotxoetan moztuko ditugu. Labeko erretilu batean prestatuko ditugu, ondo sakabanatuta eta gainetik azukrea botako diegu. Ordu erdiz labean izango dugu. Melokotoia bigunduko da, eta marmelada moduko bat lortuko dugu.

Ontziak prest ditugula, lehenik melokotoi hauek botako ditugu, azpialdean utziz. Gainean prestatuta dugun greziar jogurta botako diegu eta azkenik, gainetik, gailetak botako dizkiogu, zanpatuta. Kanela gustukoa duenak, gainetik puntutxo bat botatzea dauka. Mundiala gure gaurko postrea!

OSAGAIK

Jogurt bat.
Litro bat esne.
Bi koilarakada esne hautsa.
250 ml. arroz esne-gaia.
Bi melokotoi.
Kanaberako azukrea.
Gailetak.
Kanela.

Hizkuntzak ikasteko lekua



Hamabi urte daramatza Tolosako Hizkuntza Eskola Ofizialak eskualdeko zein Tolosaldetik kanpoko ikasleei ingelesa eta frantsesa irakasten. Eta ez da mugatzen irakastera soilik, ziurtagiri ofizialak lortu baitaitezke zentro publiko horretan. Paper kaleko 1. zenbakian aurkitzen da eraikina.

Matrikula egiteko lehen epea irailaren 1etik 28ra bitarte izango da zabalik. Dena dela, matrikulak urtarri-laren 31ra arte irekita jarraituko du. Izen emateak Internet bidez egin behar dira eta arazorik edukiz gero, eskolarekin harremanetan jar daitezke. Ordainketa ere Interneten egin daitezke edo, bestela, banketxe batean diru transferentzia egiteko aukera ere badago.

Ingeleseko klaseetan matrikulatzeko beharrezkoa izango da aurten 16 urte beteta izatea, eta frantsesean berriz 14 urte.

Maila guztiek dute lekua

Ingeleseko eta frantseseko eskolak eskaintzen dituzte, A1 mailatik C1era ingelesean, eta B2.2ra frantsesean.

Bi hizkuntzetan bi aukera daude matrikula egiteko: ofiziala edo librea. Matrikula ofizialaren bidez, astean lau ordu eta erdiz jasotzen dira klaseak, eta maiatzean nahiz irailean egin daitezke azterketa. Matrikula librea egiten dutenek deialdi bakarreko azterketara aurkez daitezke.

Klase erdi presentzialak ere badauzkate ingelesean. Aurten, esaterako, B2.2 mailako bi talde eta B2.1 mailako talde bat ere izango da. Horrela, astean zehar ikasleek bi ordu eta ordu laurdeneko klase presentziala dute, eta gainerako materia Internet bidez lantzen dute.

Ordutegiari dagokionez, ingeleseko klaseak goizez nahiz arratsaldez jaso daitezke eta frantsesekoak arratsaldez eskaintzen dituzte. Zerbitzua osatzeko, liburutegi bat ere badaukate. Liburu, CD eta DVDak eska daitezke, Internetetik edo bertara gerturatuta.

Ikasturtean zehar, elkarrizketa laguntzaile natiiboak egon ohi dira mintzapraktika egiteko. Egunerokotasunean hizkuntza hori erabiltzen duen pertsona batekin kontaktua edukitzeko aukera izaten dute ikasleek, eta liburutetan datorrena irakasteaz gain, errealitatean topatuko dutenarekin kontaktu zuzena izaten dute klasean.

Klaseetatik harago, eta berriz egoerak ahalbidetzen badu, urtean behin sagardotegian afaltzen dute irakasle eta elkarrizketa laguntzaile natiiboekin, Frantziara egun pasa joaten dira eta Tolosan zehar bisita gidatuak egiten dituzte frantsesez zein ingelesez.

TOLOSAKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA

ESKANTZA

Ingelesa: A1, A2, B1, B2.1, B2.2 eta C1 mailak.

Frantsesa: A1, A2, B1, B2.1 eta B2.2 mailak.

ORDUTEGIA

Goizez: 09:00-11:15 eta 11:30-13:45.

Arratsaldez: 15:30-17:15 eta 18:00-20:15.

PREZIOA

Ikasle ofizialak: 72,36 euro.

Ikasle libreak: 36,18 euro.

INFORMAZIOA ETA KONTAKTUA

www.eitolosaeo.hezkuntza.net

eitolosa@gmail.com

943 69 75 60



**TXOMIN AZPIROZ
DE PEDRO**
HARITUZ-EKO KIDEA

Iraileko azterketak

Doinua Nik zonbat pertsu alde

Ikasle garaietan
uda biharamun
errekuperaketak
izaten genitun.
Nahiz ikasle garaiak
ahaztuxeak nitun
gai bat geratu zaigu
neketsu ta astun!
Nahiz arauak ikasi,
nahiz ibili txukun
ez dakit irailean
gaindituko degun.





**MANEX
GURRUTXAGA
MUÑAGORI
SOZIOLOGOA**

Okupak

Baten batek hasperen egingo du izenburua irakurri orduko, eta ez da harritzekoa, gaia aitzakia hartuta komunikabideek abiarazi duten bonbardaketa ideologikoa ez baita nolanahikoa izaten ari: erreportajeak, albisteak, segurtasun-enpresen iragarkiak eta abar luze bat dira masa-komunikabideetan

eguneroko ogia. Kanpaina horren izaera manipulatzaila eta kriminalizatzailea seinalatzeko erabili nahi dut estreinako testua.

Begi-bistakoa da okupazioaren gaineko desitxuraketa eta manipulazio saiakera batean oinarritzen dela kanpaina, bestela ezin baita azaldu hainbat fenomeno okupazioaren zaku berean sartzeko erakutsi duten grina. Etxeetan lapurretara sartzea, familiak oporretan dauden bitartean beraien etxeak auskalo zertako erabiltzea edo narkopisuak sortzea esaterako, ez dira okupazioa.

Okupazioa, jabetzak pilatzea ezinezkoa zaion gizarte klase horrek ondasun sozialera sarbidea lortzeko daukan bitarteko bakarretakoa da, nahiz eta okupazio ekintza bakoitzaren atzean dagoen borondatea politikoa, soziala edo biziraupenerako intuituak mugiarazitakoa izan daitekeen. Hau da, okupazioa halabeharrez gaitz sozial batekiko erreakzioa da.

Agian, gaitz sozial horren areagotze baten atarian gaudelako ari dira okupazioa *satanizatzeko* hainbeste indar eta diru inbertitzen. Krisi batetik atera gabe eta handiago bati belarriak ageri omen zaizkion garai hauetan, aurreikusgarria dirudi masa zabalentzat kalitatezko etxebizitzarako sarbidea are eta gehiago mugatzea. Etxerik ez izatearen gaitza sufritu behar duen horri ez dakiola burutik pasa bere kabuz eta antolakuntzari esker bankuen etxebizitzaren batera sartuz gaitzari amaiera ematea.

Kalitatezko etxebizitzarako sarbidea doakoa eta unibertsala ez bada, okupazioa izango da etxebizitzarako aukera bakarra zenbaitentzat. Gustatu ala ez. Bitartean, etxebizitza sindikatuak eta espazioen babes sareen gisako antolakuntzak zilegi ez ezik, etikoki betebeharrak ere badira, ene ustetan. Hori baina, gaitzarekiko erreakzioa da, autodefentsa. Erroa sakonagoa da: esfortzuz eta urteetan irabazi daitekeen sari bat baino, gizaki izate hutsaren ondorio behar luke kalitatezko etxebizitzak Hori bermatu dezakeen gizarte antolamendua merezi dugu.

**Hau da,
okupazioa
halabeharrez
gaitz sozial
batekiko
erreakzioa da**

Pytyvõ



**MADDI AMIANO
ALLUE
IRAKASLEA**

Aitonak ez du sekula hutsik egiten gurutzegrame-tan. Aztia da bera. Denok geratzen gara bere hiztegi aberatsarekin txundituta. Momentu bakoitzerako hitz egokia aurkitzen duen horietakoa da, goxoa, argia, eta ez da soilik paperean islatzen. Goizean goiz, txikoriari kikanen kea

darion bitartean hasten da hutsuneak betetzen. Arkatzez egitea du gustuko, gutxitan erratzen bada ere, berehala zuzentzeko aukera ematen diolako alegia.

Aitona Martinek dio, kameleoiak harraparia harropatu arte zuhaitzaren kolorera egokitzen den modura egokitzen dela bera ere hutsuneak betetzera, hizkietara, hitzetara. Begien aurrean, mosaiko perfektu baten tankerako hitz segidak izateak ematen dio aitonari grina. Kameleoiak piztiari itxaroteak ematen dion zirrarak bezala. Horrela utzi ohi du aldenik alde aldizkaria zabalik jarraian sukaldera datorrenak bere abilezia goraiipatu dezan.

aulkira. Ez zaio maiz gertatzen hau aitonari. 'P' hizkia du hasieran, eta 't' tartean, eta gero ezin asmatu dabilen beste hizki batzuk. Eta, horrelakoetan xakeko taulako zaldia izatea gustatuko litzaiokeela pentsatzen du aitonak. Bi laukitxo salto egin, eta hurrengora pasa ahal izateko. Zaldi beltza ahal bada, haurra zenean baserrian zutena kafe kolorekoa baitzen.

Espero gabe, biloba ate joka sartu da etxera, inolaz ere erabiltzen ez dakien yoyo bat eskuan duela aitonaren arreta eskatuz. Eskoletan zoruan marraztu dituzten kolore askotariko marraz, manparak, eskuak garbitzeko gelak, mahaien banaketak, musukoak, jolastorduko txutxu-mutxuak eta besarkada ezak, irakaslearen aurpegia irudikatu behar izateak tristatzen duela Maren igarri du aitonak.

Arratsaldea berriketan pasa ostean, bere aulkira doa aitona. Ez du inolaz gurutzegramak amaitu gabe ohera joan nahi. Hiztegiari kontsulta egitea erabaki du lehen aldiz, bilobak aitonari arreta eskatzea erabaki duen bezala. Listo, aurkitu du. «Laguntza gwarantiz», dio gurutzegramak: Pytyvõ. Posible da bai, ttak.

Aitona argia zela esan dut nik, eta ez edonola esan ere. Ilargiaren argia aprobetxatuz etxe atariko harrian eseri da, halako puzzle bat osatu nahian. Aitona

Arkatzez egitea du gustuko, gutxitan erratzen bada ere, berehala zuzentzeko aukera ematen diolako

Gaurko gurutzegramak, Ertamerikako indigenen inguruko hutsuneek liluratu dute aitona. Gustura dabil. Badakielako horren inguruan asko irakatsi ziola gartzetan herrira iritsi zen lagun handiak. Badaki uzta jasotzeko eguna zein den jakiteko, korapiloak egiten zituela sokan, eta jasotzeko eguna iristean, sokak ez zuela korapilorik izango. Horrela zenbatzen zituen egunak. Badakizki bertako erritualak, dantzak, eta hain iruditzen zaizkio bereziak...

Hitz bakar bat falta zaio gurutzegramak amaitzeko, baina, jada bi aldiz altxa da aulkitik. Hara eta hona dabil, loreak ureztatu, leihotik begiratu, eta berriro

Martinek bere baitan: «Bilobak niri eskatu dit laguntza, nik, gauza berbera egin dut hiztegiarekin, eta hiztegiak hitz bera eman dit bueltan. Pytyvõ».

Nik horrelakoetan kuttunenean eta maiteenean pentsatzen dut. Laguntza behar duenengan. Marengan. Sei hilabeteren ostean, arratsaldeetan bere alboan eserita egotean, eta bere ahots goxoa entzutean, Maren eskolara egokitzen laguntzean. Adin batetik aurrera, biloba besarkatzea arriskutsua dela pentsatzeak baino, gehiago kezkatzen bainau geratzen zaidana goxotasunik gabe bizitzeak. Batek daki zer eragingo lidakeen garai hauetan indigena izateak...

'Tolosaldeko Ataria'-ko kolaboratzailea izan nahi?

'Tolosaldeko Ataria'-k komunikazio proiektuan parte hartzeko aukera eman nahi dizu. Ikasturte berriarekin kolaboratzaile, iritzi emaile, irritati saio gidari edota komikigile izan nahi baduzu, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edota deitu **943 65 56 95** telefono zenbakira.

Gustuko duzun hori egiteko aukera zabaldu nahi dizugu, ez galdu aukera!



2^{mó}
graduatu
erreflexuen
aurkako
lenteekin

99€

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



**EZ EGIN UKO EZERI
AUKERATU MÓ**

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

MULTIÓPTICAS



www.multiópticas.com



KARLOS LINAZASORO
POETA

Galduko balira

Galdu egiten ote dira gauzak?
Soinekoak, sagarrondoak, galdu?
Bihotzean gorde eta zabaldu,
eta galdu gure lore-baratzak?

Nik ez dut uste ezer galtzen denik.
Ahantzi bai, gure ezpainetan gorde,
leundu eresi eta akorde,
baina betiko galdu, ez, beharrik.

Galduko balira zeru eta lur,
eta haien baitan gu eta harriak,
nola maiteko zintuzket nik, nola,

eta zuk ni, haragi eta hezur,
eta irailak bere txoriak,
galduko balira fruitu eta eskola?



AGENDA

OSTIRALA IRAILAK 11

BEDAIO. ZARATE

AZKEN MUGA. HITZALDIA

19:00. *Mugak saroi erdian*. Xabier Kerexetaren hitzaldia, Gipuzko-ako Gordailuaren historialaria.

GAZTELU

FILM PROIEKZIOA

Lander Garroren *Bi urte, lau hilabete eta egun bat* lanaren proiektzioa.

IBARRA

ELKARRETARATZEA

20:30. Igor Gonzalez Solaren heriotza salatzeako elkarretaratzea, plazan.

TOLOSA

ANTZERKIA

19:00. Evaren alabak taldearen *Cromlech* antzezlan. Sarrerak agortuta daude. Aranburu jauregian.

TOLOSALDEA

LEHIBERRI MANAGEMENT SCHOOL

09:00-11:00. *Nola finantzatu formazioa eta garapen planak*. Helburua bertaratutakoei prestakuntza eta garapen planak gauatzeko aukera, eta bakoitzaren berezitasunak eta finantziarioa lortzeko programa ezberdinen berri ematea da. Hizlaria Ana Ugalde da, Gipuzkoako Bazkunatik. *Online* eskainiko da eta beharrezkoa da aldeaz aurretik izena ematea: lehiberri@tolosaldea.eus edo 943 65 45 01.



LARUNBATA IRAILAK 12

AMASA-VILLABONA

AZOKA BEREZIA

09:30. Irrintzi elkartearen azoka berezia. Hogeita bosgarren aldia izango du Villabonako Irrintzi elkarteak antolatzen duen elikagai eta artisautza azokak. Ohi bezala, isats gisatu lehiaketa ere egingo da azoka bereziarekin batera. Aurtengo beritasuna koakalekua izango da, Errebote plazan egingo baitute.

GASTRONOMIAREN JATORRIA

12:00. *Txakolina. Tradizioa eta beritasuna, elegantziarekin*. Bisita eta bazkaria: 57,20 euro. Izena emateko: tour@tolosaldea.eus edo 943 69 74 13. Hika Txakolindegan.

BEDAIO. ZARATE

AZKEN MUGA

12:00. Zumetari omenaldia. Azken Mugako artistek mural bat egingo dute.

18:00. Juan Sebastian Elkano kontzertua. Euskal Barrokensemble taldearen kontzertuaz gozatzeko aukera izango da.

ERAKUSKETA

ZUMETA BIHOTZEAN

Azken Mugako ekitaldien barruan, Zumetari eskainitako omenaldia erakusketa gisara, Zaratetxean ikusgai dago irailaren 26a bitarte. Jose Luis Zumeta artista handiari egin nahi zaion omenaldian 30 artistek lan bana erakusgai dute. Ostirala (18:00-20:00), larunbata (11:00-13:00 eta 18:00-20:00) eta igandea (11:00-13:00).

Bedaio, Zarate.





IKAZTEGIETA

OSASUN MATERIAL BILKETA

10:00. Saharako Gazteria Aktiboa Saharako errefuxiatuen kanpamenduetako egoeraz kazkatuta dagoen taalden da eta Ikaztegi-tan osasun material bilketa egiteko prest agertu dira. Maskarak, gel hidroalkoholikoak, eskularruak eta parasetamola bilduko dute. Herriko plazan.

IRURA

ANTZEZLANA

18:00. ProZak Malas Compañías antzerki taldearen ikuskizuna, plazan.

LIZARTZA

KONTZERTUA

19:00. Olatz Salvadorren kontzertua, mediku etxe aurrean.

TOLOSA

AZKEN BEHERAPENAK EGUNA

10:00-20:00. Tolosa&Co-k Azken beherapenak eguna antolatu du. Tolosa&Co-ren elkartekide diren saltoki askok euren denda atarietara aterako dituzte beherapenez

betetako pertxero eta mahaiak. Parte hartuko duten saltokiak: Pottoko, Peage, Arteka, Brunila, Mugar (Nafarroa Etorbidea), Pasaban, Roncal, Tasia, Marilyn, Berezi Tallas Especiales, Mauka, Rainbow, Jantzi Zure Arima, Bolsos Zunzu, Maite Estetika, Arkupe, Arkupe Moda, Arretxe Merceria, Eide, Imanna, Mundu Magikoa, MY 54, The Factory, Algara, Ubel, Kimetz, La Ratita Presumida, Niko, SKFK, Guki Ekogunea, MM, Tantai, Colors, Kanikak, Dandaka, Lardies (Rondilla), Mugar (Rondilla), Lizarribar Oinetakoak, BáB, Yoli, Corner, Patxo, Zapateria Azkune, NZB.

SORMENETIK

12:00. Uxue Alberdi eta Eider Rodriguez. Zerkausi azpian.

IGANDEA IRAILAK 13

ZIZURKIL

ANTZERKIA

19:30. Impro-komeriyak helduen antzerkia, Joxe Arregi plazan.

ZINEMA



PADRE NO HAY MAS QUE UNO 2

Larunbata (19:30 eta 22:15),
igandea (17:00) eta
astelehena (21:00).

Gurea aretoa, Amasa-Villabona.



VA POR NOSOTRAS

(UNE BELLE EQUIPE)

Larunbata (19:30), igandea
(19:30) eta astelehena (20:00).

Leidor antzokia, Tolosa.



BIHURRI, JAURETXETIK

KALE GORRIRA

Igandea (16:00).

Leidor antzokia, Tolosa.



BAT BAKARRA ETA GUZTIAK

Donostiako Kubo-Kutxa aretoan Alkizan bizi den Juan Luis Goenaga artistaren atzera begirako erakusketa zabaldu dute; 50 urtetako ibilbide artistikoa biltzen du eta urtarrilaren 10a bitartean izango da ikusgai.

Jon Miranda

Sei gune tematikotan dago antolatuta erakusketa eta elkarren segidan daude lanak, egilearen irakurketa kronologikoa eta bere obraren garapena ikusi ahal izateko. Azken 50 urteetan egindako margolanak bildu eta antolatu ditu Mikel Lertxundi Galiana komisarioak. «Hala ere, aretoak aukera ematen dio ikusleari atzean utzi duena eta aurrean daukana ikusteko, eta horri esker, Goenagaren lanetan joan-etorrian dauden gaiak ikusi ahal izango ditu».

Donostian jaio zen Juan Luis Goenaga 1950. urtean eta haurtzaroko eta nerabezaroko olio pinturetan da goeneko antzematen zitzaion joera espresionista.

60ko hamarkadan bere sorkuntza lana euskal errealitate existentzialarekin errotzeko ahalegina egin zuen eta Alkizako Otsamendi etxean hartu zuen bizilekua. Hernio-Gazumeko parajeetan barrena ibili, naturan esku hartu eta argazkiak ateratzen zituen egunez (artistak berak errebelatutako lau argazki ikusi daitezke erakusketaren hasieran), eta gauez saiatzen zen ikusitako horrek eragindako sentsazioak pintura eta marrazkiaren bitartez esplikatzen. Jose Migel Barandiaranek jasotako mundu mitologiko eta sinbolikoan zuen interesa. Hasierako bolada horretan egindako margolanak **Naturaren murgiltzea** gunean daude ikusgai. Azpimarratzekoak dira, *Itzalak* (1972-1973),



Belarrak (1973-1975) eta *Sustraiak* (1974-1976) serie-

ak.

«Jakintza entziklopedikoa du Juan Luis-ek», aipatu du aurkezpenean Lertxundik. «Kate begi bat gehiagotzat du bere burua, kobazuloko artetik hasi eta XX. mende erdialdera arte. Pintore horiek guztiek aurkitutako soluzioak baliatu ditu bere sorkuntza lanean». Artistak berak aitortu du bere ibilbidearen hasieran Italiara egindako bidaiak eta han ezagututako

pintoreek zenbateko arrastoa utzi zuten bere egiteko moduan. Areto horretan bertan ikusgai dagoen *Abs-tracción en grises* (1975) lanari begira egin du aipamena.

Koadro horretan eta 70eko hamarkada bukaeratik

aurrera egindakoetan, naturako elementu horien arte-
tik azaltzen hasten dira irudiak eta erakusketaren bi-
garren gunean **Giza irudia eta errebelazio urbanoa**
izenekoan presenteago egiten dira. Abstrakzioa eta
figurazioa, konstanteak izango dira Goenagaren ibil-
bidean, «aldi berean nahastuko ditu». Alkizatik Do-
nostiara aldatu zen artista eta 80ko hamarkadako la-
nei pop ukitua sumatzen zaie; kolore biziagoak erabil-
tzen ditu artistak baina bere horretan darrai bere
pintzelkadaren kemenak eta dinamismoak. Motiboak
ere aldatu egiten dira: bikoteak ageri dira, paisaia ur-
banoak, eguneroko eszenak... *Profiden* (1978), *Antro-
pomorfos y Androginos* (1978-1979), *Basoan dantzan*



© Juan Luis Goenaga. *Sustraiak II (Raíces II)*, 1975
Bilduma pribatua. Colección particular



© Juan Luis Goenaga. *Antropomorfos y Androginos*, 1978
Bilduma pribatua. Colección particular




© Juan Luis Goenaga. *Basoan dantzan*, 1979
Bilduma pribatua. Colección particular

(1979-1980) eta *Katastrofes* (1980) bildumetan ikusi daiteke hori.

1983. urtetik aurrera aldaketa dator Juan Luis Goenagaren bizitzara eta **Unibertso intimoa** gunea da horren erakusgarri. Alkizara itzuli zen artista eta Urruzola Asti baserrian jarri zen bizitzen familiarekin batera. Garai hartako koadroetan familia eszenak, eguneroko bizitzako objektuak eta autorretratuak ageri dira.

Juan Luis Goenagak atzera begirako erakusketaren aurkezpenean esan du, asko jota, lau edo bost gai nagusi lantzen dituela bere margolanetan. Geologia da gai horietako bat. Arroak, fosilak eta mineralak funtsezko inspirazioa dira artistarentzat, bereziki, 1991. urtetik aurrera. Ordutik aurrera, indar handiagoz itzuli zen arkaikoaren eremura. *Romanico* eta *Arkeolojiak*



© Juan Luis Goenaga. *Santorkaria II*, 1991
Bilduma pribatua Colección particular




© Juan Luis Goenaga. *Izenbururik gabekoa*, Sin título, 1995
Bilduma pribatua Colección particular

sailak dira adibidea, **Labarren inspirazioa** gunean ikusi daitezkeenak Kubo-Kutxa aretoan.

Eta hortik aurrera, XXI. mendean sartuta, substratu arkeologikoa oinarri gisa hartuta, beste motibo batzuk tartekatu eta kolorean ere berrikuntza nabari da Goenagaren koadroetan. **Abstrakzioa versus figurazioa** gunean ikusi daitezke azken urteetako lanak. Mostra honetako lanik koloretsuena, akaso, izenbururik gabeko 1995. urteko obra da, erakusketarako aukeratu duten koadro erotiko bakarra. Artistak berak dio tematika horrekin beste erakusketa oso bat antolatzeko adina material baduela etxean. Pintzelkada horiak ageri dira koadroan, sueto, mugimendua balego bezala. «Goenagaren obra guztian erritmoa eta dinamismoa nabari dira, bai pintzelkadan eta baita konposizioan ere», aipatu du Lertxundik, eta albotik artistak, aitortu du maiz musika irratan jarri eta dantzan ari dela pintatzen dituela koadroak.

Kobazulotik paisaiara gunean bildu dituzte Goena-



© Juan Luis Goenaga. Txangotariak [Excursionistas], 2014
Bilduma pribatua Colección particular

garen azken urteetako lanak. Aretoan zintzilikatuta ikusiko ez balitu, tailerrean koadro horiek lantzen ari-tuko zen, Lertxundik aipatu duenez, «atzaparretatik kendu egin behar zaizkio Juan Luisi koadroak, bestela etengabe itzultzen da horietara». Goenagak ere aitortu du norbaiten etxean ikusten dituenean bakarrik ematen dituela obrak bukatutzat. Gune honetan 1980. hamarkadan Parisen hasi eta iaz bukatu zuen lan bat ikusi daiteke. Geruza, geruzaren gainean.

Bukatzeko beste areto batean, 50 urteotako ibilbidean paper gainean egindako obrak jaso dituzte. Margolari gehienentzat marrazkiak eta akuarelak prozesuaren aurre lana izaten dira, baina Goenagaren kasuan olio-pinturetako formen eta gaien definizioaren ondorio bezala ageri

«Bizi guztia daramazu margotzen baina pintura benetan zer den 70 urterekin hasten zara ulertzen»

J.L. GOENAGA

dira askotan. Gune honen sarreran, gainera, 1966tik 2018ra bitartean egindako autorretratu sorta ikusi daiteke.

Erakusketaren aurkezpen ekitaldian Juan Luis Goenagak berak nabarmendu du, inoiz ez duela aurretiaz planteatzen ez zer pintatuko duen, ezta nola pintatuko duen ere: «Mantxa bat da abiapuntua. koadroak azaldu egiten dira», esan du. Pintura «autonomoa» dela azpimarratu du artistak, eta momentuko aldar-tekin zerikusi gutxi duela uste du: «Bizi guztia daramazu margotzen baina pintura benetan zer den 70 urte-ekin hasten zara ulertzen».

Lertxundik 2018an kaleratu zuen artistaren orain arteko ibilbidea jasotzen duen *Goenaga* izeneko liburua eta orduan hasi zen gorpuzten atzera begirako erakusketaren ideia. Aurten, hain justu, 25 urte betetzen dira Goenagaren azkeneko atzera begirakoa antolatu zela Gipuzkoan. Koldo Mitxelena erakutsi zen eta Edorta Kortadi izan zen komisarioa. «Errebisio bat beharrezkoa zen», aitortu du Lertxundik. Bere aldetik, Ane Abalde, Kubo-Kutxa aretoko zuzendariak ezin aproposagoa iritzi dio atzera begirako honi, sei hila-betez itxita egon den erakusketa aretoa berriro zabaltzeko. Gainera, Donostiako Zinemaldiaren bezpere-tan ireki nahi izan dute, Woddy Allenek bertan estreina-tuko duen *Rifkin's Festival* filmari keinu eginez. Allenek Goenagaren koadroak eta tailerreko materia-la baliatu ditu pelikulako hainbat pasarteetan.

Artistaren bildumako lanak, 26 bilduma partikula-rretakoak beste hainbat erakundeta-koak bildu dituzte erakusketan (Gipuzkoako Foru Aldundia, D´Museoa, Artium, Bilboko Arte Ederren museoa, San Telmo, Kutxa Fundazioa...). Guztira 128 lan dira. Donostiako Kubo-Kutxa aretoan asteartetik igandera ikusi ahal izango dira 12:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Bisita gidatuak egingo dituzte erakusketan zehar, larunbatetan 17:30ean euskaraz eta 18:30ean gaztelaniaz.



IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

EGU RAL DIA

OSTIRALA

Uda-sasoiko giro ederra. Goizean hodeixka batzuk agertuko dira berriz ere baina garrantzirik gabeko hodeiak izango dira. Eguerdirako garbitu eta giro eguzkitsua nagusituko da arratsalde osoan. Haizeak ipar-ekialdetik joko du eta tenperatura balio altuenak zertxobait igoko dira, 27-28 gradutan joaz goia.

LARUNBATA

Giro eguzkitsua eta bero xamarra. Aurreko egunetan bezala, goizean goizetik giro eguzkitsua izango da eta eguzkiak gogotik berotzeko aukera izango du. Arratsalde partean goi-hodeiren bat edo beste ikusiko da, baina ez dute garrantzirik izango. Haizeak goizean hegotik joko du, baina arratsaldean ipar-ekialdetik finkatuko da. Termometroek gora egin eta balio altuenak 28-29 gradutan joko dute goia.

IGANDEA

Giro beroa. Berriz ere egun osoan zehar giro eguzkitsua nagusituko da. Goi-hodeiren bat edo beste ikusiko da, baina ez dute garrantzirik izango. Haizeak hegotik joko du egun osoan eta tenperatura balio altuenak nabarmen igoko dira, bero handi xamarra utziz. Tenperatura balio altuenak 32-33 gradutan errendituko dira.

ZERBITZUAK



ZORIONAK

Aurtengoaren ospakizuna etxetik gertuago tokatzen al da? Edonola ere, primerako larunbata izan! Primeran ospatu!

ZORIONAK

Igandea deskonexiorako eguna, edo parrillan eguneko albisteak sukaldatzeko prest? Primeran ospatu!

ZORION AGURRAK

*Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...*

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

FARMAZIAK

IRAILAK 11, OSTIRALA

TOLOSA

Egunekoa.

Inazio Olarreaga Aranburu.
Korroo kalea, 2. 943 67 01 28.

IRAILAK 12, LARUNBATA

TOLOSA

Egunekoa. Edurne Bengoetxea.
Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

IRAILAK 13, IGANDEA

TOLOSA

Egunekoa. J. Maria Etxebeste Elozegi.
Gernikako Arbolarren lorategiak, 3.
943 65 10 40.

IRAILAK 14, ASTELEHENA

IBARRA

Egunekoa. Leyre Lejeune Maset.
Euskal Herria, 24.
943 67 32 74.

**EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO
FARMAZIA: TOLOSA.**

LURDES AZPIROZ GALARZA.
LARRAMENDI, 6. 943 67 51 18.



zozketak

Atarikideentzat

bi kutxa

ditugu

AMA tabernako gazta tarta txikia eta dozena bat kroketa dituen bi kutxa ditugu atarikideentzat

- Maite Aizpurua (Ibarra)
- Iñaki Aristeta (Aduna)

GURE IZAERA
KULTURA
HIZKUNTZA LEHENA.

GEUREA LEHENA.

⇒ 1

Audi Enpresan

ZERO ISURI IZANGO DUEN
ETORKIZUN BATEN ALDE
EGITEN DUGU LAN

ARRASTORIK
EZ UZTEKO
BERRITZEN DUGU

Gaztelugatxe, Bizkaia



Audi A3 Sportback 40 e-tron

Gure esfortzu guztia jartzen dugu zero isuri izango duen etorkizuna eraikitzeko. Entxufatu daitekeen Audi teknologia hibridoa bezalako teknologiek berritzen dugu; motor elektrikoa eta gasolinakoa bateratzen ditu. 40 kilometro arteko %100eko autonomia elektrikoa du, gidatze eraginkor eta arduratsua eskainiz.

Entxufatu daitekeen Audi TFSI teknologia hibridoa honako modeloetan dago:

Audi Q5 TFSIe, Audi Q7 TFSIe, Audi A3 Sportback 40 e-tron, Audi A6 TFSIe, Audi A7 Sportback TFSIe eta Audi A8 TFSIe.

audi.es/a3etron



Autowag Tolosa

Usabal industrialdea, z/g
20400 Tolosa
Tel. 943 67 35 81

150 kWko (204 CV) Audi A3 Sportback 40 e-tron. CO2 isuri konbinatuak: 43tik 46 g/km-ra. (NEDC: 43tik 46 g/km-ra). Kontsumo konbinatua (erregaia): 1,9-2 l / 100 km.